



**Getxo**  
*bizi ezazu*

**GOBELAURRE**  
Boluntariotza Zentroa

# **GOBELAURRE**

## **Boluntariotza Zentroa**

**LOKALAK ERABILTZEKO ARAUBIDEA**



## ZIOEN AZALPENA

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean jaso zenez, **hirugarren sektorearekin kolaboratzea indartu egin behar da**, laguntza-sare informalei eutsi egin behar zaie, pertsona kaltetuek modu antolatuan parte hartzea sustatu behar da, eta sistemen arteko koordinazio- eta lankidetzak-espazioak sortu behar dira (soziosanitarioa, soziolaborala, gizarte- eta etxebizitza-alorrekoak, soziodudiziala, soziokulturala eta bestelakoak), eta herritar guztiek erabateko herritartasunera sarbidea izatea, justizia soziala sustatzea eta bazterketaren egitura-kausei ekitea ahalbidetuko duen gizarte-politika garatu behar da.

Halaber, seigarren artikulua Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren (GZES) helburuen artean aipatu zuen **komunitateak gizarte-zerbitzuen esparruan arreta jaso dezaketen gizarte-beharrizanei erantzuten parte har dezan sustatu behar dela, bereziki erabiltzaileek eta gizarte-zerbitzuen eremuan jarduten diren erakundeek banaka eta elkartuta parte har dezaten sustatzea**. Artikulu berean adierazi zen elkartasuna eta elkarbizitza sustatzea eta gizartearen parte-hartzea sustatzea beste sistema eta politika publiko batzuekin partekatutako helburu gisa hartuko direla.

12/2008 Legea dela bide, Eusko Jaurlaritzak, aldundiek eta udalek **gizarte ekintzako hirugarren sektorea sustatzeko eskumena daukate**, baita herritarren parte-hartzea sustatzeko, elkartegintza eta boluntarioak sustatzeko eta gizarte-zerbitzuen kudeaketa eta ebaluazioan erabiltzaile eta profesionalek parte hartzea sustatzeko eskumena ere; ahal den neurrian, emakumeen eta gizonen parte-hartze orekatua izateko ahalegina egingo da.

Hala, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak **gizarte-ekintzaren hirugarren sektorea** txertatu zuen gure ordenamenduan, kontzeptua definitu ez bazuen ere. Elkarrizketa Zibilerako Mahaia eratu eta arautzeko abenduaren 11ko 283/2012 Dekretuak, ostera, gizarte-ekintzako hirugarren sektorea definitu zuen, esanez "erakunde pribatu jakin batzuek osatzen dutela; erakunde pribatu horiek formalki antolatuta daude, ez dute irabazteko asmorik eta, nagusiki, gizarte-elkartasuna sustatzen dihardute, hala nola pertsonen parte-hartze soziala, gizarte-eskubideak, gizarteratzea eta gizarte-kohesioa bultzatzen Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan".

Gizarte-ekintzako Hirugarren Sektoreari buruzko estatu mailako urriaren 9ko 43/2015 Legeak izaera pribatuko erakunde gisa definitu zituen, modalitate desberdinekin herritarren edo gizartearen ekimenez sortutakoak; elkartasun eta gizarte-partaidetza irizpideen arabera jokatzeko dute, interes orokorreko xedeak dituzte eta ez dute irabazteko asmorik; eskubide zibilak aitortzea eta aplikatzea bultzatzen dute, baita gizarte-bazterketa arriskuan edo zaurkortasun-baldintzetan dauden pertsona eta taldeen eskubide ekonomikoak, sozialak edo kulturalak ere.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak euskal administrazio publikoek eman behar dituzten prestazio eta zerbitzuak definitu zituen, 12/2008 Legean ezarritako eskumenen araubidearen arabera. I A eranskinean (udala mailan eman beharreko zerbitzu eta prestazioei dagokienez), **Gizarte-zerbitzuen eremuko parte-hartzea eta gizarteratzea sustatzeko zerbitzua** definitu da



(1.5). Zerbitzu horrek GZESren helburuak lortzeko komunitatearen parte-hartze antolatua bultzatzen du, baita gizarte-zerbitzuen esparruan arreta jaso dezaketen beharriazkoen erantzuten eta horren prebentzioan ere; bereziki, hauen parte-hartzea bultzatu da:

- a) Beste gizarte zerbitzu batzuetako erabiltzaileak izan zein ez, beharriazkoen prebentzio eta arretan parte hartu nahi duten pertsonak, taldeen, sareen edo elkarri laguntzeko beste ekimen batzuen bitartez;
- b) Herritarrak, oro har, helburu horietara bideratutako boluntario jardueren bitartez (gizarte boluntariotza).
- c) Toki mailan lan egiten duten gizarte ekintzako hirugarren sektoreko entitateak
- d) Erabiltzaileak eta, hala badagokio, senideak zerbitzu eta zentroetan.

Udala tokiko administrazio publiko bat da, eta herritarren eta gizarte-eragileen parte-hartze eta elkarrekintzarekin garatzen du dagokion jarduna. Lokalen erabilera lagaz, Getxoko Udalak elkarrekin sarea sustatzeko jarduna garatuko du, gizarte-ekimenaren lana erraztuz udal jabari publikoa modu berezian erabiltzea baimenduz.

Hortaz, udal titulartasuneko **Gobelaurreko lokalak erabiltzea borondatez eta doan lagaz gizarte-intereseko jardura autokudeatuak egitea sustatu nahi da.**

Horren haritik, Gizarte Zerbitzuen Sailak lotura estu eta sakona du SAREKIDE Getxoko Boluntariotza Erakundearen Elkartearekin (lehen FEDEVOL); 15 elkarteek osatzen dute sarea, eta hainbat esparrutan egiten dute lan (degaitasuna, bazterketa, emakumeak, arlo soziosanitarioa, immigrazioa eta kulturartekotasuna, etab.). Irabazi asmorik gabeko entitate bat da, eta lotura estua du Gizarte Zerbitzuen Sailarekin, eta, bereziki, GOBELAURRE Boluntariotza Zentroarekin, 2011n ireki zenetik. Getxoko boluntariotza sustatzea eta indartzea du xede nagusizat, eta erakundeak zein entitate erabiltzaileek zentroko eguneroko jardunaren erreferente gisa hartzen dute. Helburuak lortze aldera, SAREKIDEk Getxoko Udalarekin kolaboratzen du boluntariotzako lokalak kudeatzen.

Gobelaurreko lokalaren erabilera arautzea Getxoko Udalaren eskumen eksklusiboa da, sarbide objektiboko prozedura ezarriz; sarbide horretan gizarteari onura handiena ematen diona lehenetsiko da, betiere espazioen eskuragarritasuna aintzat hartuz.



## LEHENENGO TITULUA.- ARAUDIAREN XEDEA

### 1. art.- GOBELAURREKO LOKALEN XEDEA

Gobelaurre Boluntariotza Zentroa udal higiezinaren helburua Getxoko Udalarekin kolaboratzen duten eta udalerrian lan egiten duten gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko entitateei edota getxotarrei laguntza ematea da, kasuan kasuko jarduna garatzeko lokalak behar badituzte.

Gobelaurre Boluntariotza Zentroko espazioak (ikusi I. ERANSKINA) kasuan kasuko ezaugarrien arabera erabiliko dira:

- Bulego gisa, **aldi baterako egoitzen kasuan** (gizarte-egoitza, kudeaketa- eta administrazio-jarduerak, etab.).
- Lokalak erabiltzea **aldi baterako edo noizbehinkako elkarte-jarduerak egiteko** (bilerak, koordinazio-lana, jardunaldiak, ikastaroak, prentsaurrekoak, hitzaldiak, etab.).

Ahal bezain entitate gehienek aldi baterako edo noizbehinkako jarduerak egin ahal izateko, entitate eskatzaile bakoitzak erreserben gehienezko kupo jakin bat izango du. Kupo hori urtero finkatuko da, jasotako eskabide kopuruaren eta eskuragarritasunaren arabera.

Getxoko Gizarte Zerbitzuen Sailak espazioak jarduera propioetarako erabili ahalko ditu, eta beste udal sail batzuen erabilera puntuala baimendu ahalko du, jardueraren izaera eta lokalen erabilgarritasuna aintzat hartuz.

### 2. art. – DOKUMENTU HONEN XEDEA

Dokumentu honen xedea Gobelaurre Boluntariotza Zentroan kokatutako udal lokalak doan erabili ahal izatea arautzea da, bereziki aipatutako instalazioak eta Boluntariotza Zentroko gainerako baliabide eta zerbitzuak erabiltzeko gizarte-entitateen eskubide, betebeharrak eta baldintzak arautzea.

### 3. art.- ERAKUNDE ONURADUNAK

Gobelaurre Boluntariotza Zentroa udal **gizarte-zerbitzuen eskumen-esparruan lan egiten duten gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko erakundeei** zuzenduta dago, betekizun hauek betetzen badituzte:

- Legez eratuta egotea
- Izaera juridiko propioa izatea
- Irabazteko asmorik ez izatea
- Behar bezala erregistratuta egotea Getxoko Udaleko edota Eusko Jaurlaritzako elkarte/fundazioen erregistro(et)an
- Gizarte Segurantzaren zerga arlo (Ogasuna) eta Getxoko Udalarekiko (laguntzen justifikazioa, zorrak, etab.) betebeharrak egunean izatea



- Izaera sozialeko helburuak izatea, berdintasun, gizarte-justizia eta giza eskubideak erabat errespetatzeko irizpideetatik abiatuz
- Egitura ireki eta parte hartzaileak izatea, lan egitean gardentasun, parte-hartze demokratikoko irizpideak izatea, boluntario edota bazkideen koordinazio, erantzukidetasun eta protagonismoa sustatuz.

Kultura, kirol eta gazte izaerako entitateak eta alderdi politikoak araudi kanpo geratu dira, baita enpresa- eta sindikatu-elkarteak ere.

#### 4. art.- IZAPIDETZEA

1.- **Aldi baterako egoitzak** eta **aldi baterako jardueretarako** espazio komunak erabili ahal izateko **urteko deialdi publikoa** onartuko da.

Modalitate horietarako eskabideak aurkezteko epea deialdian ezarriko da, eta ez da izango 15 egun baino gutxiagokoa. Epea iragarri egingo da, kasuan kasuko publizitate ondorioetarako; horretarako udal komunikabideak baliatuko dira. Halaber, aurreko urtean lokala lagapenez jaso duten entitateei posta arruntez edota elektronikoz jakinaraziko zaie.

2.- **Noizbehinkako jardueretarako** espazio komunak erabiltzeko eskabidea urteko edozein unetan aurkeztu ahalko da, dokumentu honetan ezarritako epeekin bat etorritik.

3.- Gobelaurre Boluntariotza Zentroko lokalak erabili nahi dituzten entitateek **eskabidea aurkeztu** beharko dute, eredu normalizatuaren arabera:

- DN19 (egoitzen kasuan),
- DN\*\* (aldi baterako jardueren kasuan)
- DN\*\* (noizbehinkako jardueren kasuan)

Getxoko Udalak beharrezkotzat jotako agiri edota informazio osagarri oro eskatu ahalko die entitate eskatzaileei, aurkeztutako eskabidea zuzen ulertu eta ebaluatzeko. Bidenabar, eskatutako betekizunak betetzen direla egiaztatu ahal izateko beharrezkotzat jotako datu oro ere eskatu ahalko du.

Aipatutako betekizunak betetzen direla emakida unean egiaztatu beharko da, hala badagokio, baita udal lokalak erabiltzeko aldian zehar ere.

4.- Eskabideak, dokumentazio osagarriarekin batera, edozein udal erregistrotan aurkeztu ahalko dira.

Bidenabar, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikularekin bat etorritik ere aurkeztu ahalko dira eskabideak.

5.- Eskabideek ez badituzte betetzen eskatutako betekizunak, entitateari **eskabidea zuzentzeko** eskatuko zaio; halaber, ohartaraziko zaio horrela egiten ez badu eskaera bertan behera utzi duela ulertuko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan ezarritakoan oinarrituz.



#### **5. art. - EMAKIDAK EMATEKO IRIZPIDEAK**

Gobelaurre Boluntariotza Zentroko lokalen erabilera ebaluatu eta, horrenbestez, esleitu ahal izateko kasuan kasuko urteko deialdian finkatuko diren balorazio-irizpide zehatzak hartuko dira kontuan.

Aldi baterako jardueretarako lokal edo egoitzen adjudikazio-ordena lortutako puntuazioaren arabera ezarriko da, deialdian jasotako balorazio-irizpideak aplikatuz.

Egoitza zentroan daukaten SAREKIDeko entitateek lehentasuna izango dute aldi baterako edo noizbehinkako jarduerak egiteko.

#### **6. art.- EBAZPENEA**

1.- Getxoko Udalak, Alkatetzaren dekretu bitartez, lokalak erabiltzeko eskabideak ebatziko ditu, SAREKIDE Getxoko Boluntariotza Erakundeen Elkarteak eta Gizarte Zerbitzuen Sailak egindako proposamenei jarraiki.

2.- **Aldi baterako jardueretarako** espazioak eta **aldi baterako egoitzetarako** lokalak emateko ebazpenean lokalak erabiltzeko entitate bakoitzari baimendutako ordutegi eta epea zehaztuko dira.

Lokalak erabiltzeko ordutegia zein banaketa emakida aldian zehar aldatu ahalko dira, Udalak beharrezkotzat jotzen badu, herritarrei zerbitzu hobea eman eta hasieran aurreikusitako egoerei aurre egin ahal izateko.

3.- Aldi baterako jardueretarako espazioak eta aldi baterako egoitzetarako eskabideak gehienez bi hileko epean ebatziko dira, dokumentazioa aurkezteko epea ixten denetik zenbatzen hasita. Ebazpenik eman ez bada, eskabideak baztertu egin direla ulertuko da.

4.- **Noizbehinkako jardueretarako espazioak** esleitzeko ebazpena gehienez 15 eguneko epean emango da, eskabidea aurkeztu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

5.- Ebazpenak administrazio bidea agortzea ekarriko du, eta ebazpen horren aurka entitate interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahalko dute ebazpena eman duen organo berberaren aurrean. Hala ere, egokitzen jotako beste edozein errekurtso ere aurkeztu ahal izango dute.

6.- Emakidarako aintzat hartutako baldintzak edozein modutan aldatuz gero, emandako ebazpena aldatu edo, are gehiago, emakida bukaraztea ekar dezake.



### **BIGARREN TITULUA.- LOKALAK ERABILTZEKO ARAU OROKORRAK**

#### **7. art. – ERABILERA MODALITATEAK**

##### **7.1.- ALDI BATERAKO EGOITZAK**

###### Aldi baterako egoitzen definizioa eta helburua

Aldi baterako egoitzak Getxoko udalerriko gizarte-erakundeek behin-behineko bulego gisa baliatzeko prestatutako espazioak dira. Erakundearen ohiko barne jarduera garatzea eta kudeatzea errazteko helburua daukate, horretarako beharrezko oinarrizko baliabideak haien zerbitzura jarritz.

Getxoko Udalarekin kontraturen bat sinatuta duten erakundeek ere aldi baterako egoitzak erabili ahal izango dituzte. Hala ere, kontratuaren lehenengo hamazortzi hilabeteetan baino ezin izango dituzte erabili.

###### Lokalen osaera (deskribapena, ekipamendua eta zerbitzuak)

Aldi baterako egoitzak **bakoitzak bi lanpostu hartzeko** espazio egokietan kokatuta daude (ikus I. ERANSKINA).

Lanpostu bakoitza entitate edo entitate talde batek erabiliko du, eta **oinarrizko altzari** hauek izango ditu: **mahaia, aulki birakaria eta bi aulki gehigarri, eta armairu bat.**

Getxoko Udalak aldi baterako egoitza gisa adjudikatutako espazioetan telefonoa instalatzea baimendu ahalko du, hala eskatzen dioten entitateei.

- Postu bakoitzak **telefono kableak** ditu, eta bertan kokatutako entitateek kontratatu beharko dituzte beharrezko telefono eta informatika zerbitzuak, taldeka zein banaka, nahi duten konpainiarekin.
- Telefono eta informatika ekipamenduak instalatu eta erabiltzearen ondoriozko gastuak kontratatu eta erabiltzen dituzten entitateek ordaindu beharko dituzte.

Udalak **wifi sistema** jarriko du entitateek Gobelaurre Boluntariotza Zentroan egindako jardueretan; haririk gabeko sare propioa konektatzeko aukera eskainiko du.

Egoitza zentroan daukaten entitate orok **postontzi** bat izan dezake, posta jasotzeko.

###### Aldi baterako egoitzen erabilera lagatzea

Gobelaurre Boluntariotza Zentroan bulegoak behin-behinean erabili ahalko dira aldi baterako egoitza gisa.

**Urtero deialdi bat** egingo da, eta **urtebeterako adjudikatuko da; gehienez hiru urtera arte luzatu ahalko da**, eta udalak edozein unetan berrikusi ahalko du entitatearen erabiltzaile izaera eta lagatako espazio eta ekipamenduen esleipena; horien baldintzak





aldatu ahalko ditu, baita emakida bukatutzat eman ere. Horretarako, DN 19 eskaera erabili behar da.

Urteroko deialdiaz gain, espazio libreak baldin badaude, entitateek urtean zehar ere aurkeztu ahalko dituzte aldi baterako egoitza eskabideak.

## 7.2 – ALDI BATERAKO JARDUERETARAKO ESPAZIOAK

### Aldi baterako jardueretarako espazio komunaren definizioa eta xedea

Entitateen eguneroko dinamikan erabilera-aldi luzea (gehienez urtebete) behar duten jardueretarako erabilitakoak ulertzen dira aldi baterako jardueretarako espazio komun gisa, esaterako tailerrak, prestakuntza-ikastaroak, etab.

### Lokalen osaera (deskribapena, ekipamendua eta zerbitzuak)

Eskari horri erantzuna emateko, Gobelaurre Boluntariotza Zentroak aldi baterako ekintzak garatzeko espazioak eskaintzen ditu. Espazio horiek oinarrizko ekipamendu teknikoarekin erabil daitezke. (Ikusi I. ERANSKINA)

### Aldi baterako jardueretarako espazioak erabiltzeko emakida

Gobelaurre Boluntariotza Zentroan espazio komunak behin-behinean erabili ahalko dira aldi baterako jarduerak egiteko.

**Urtero deialdi bat** egingo da, eta **urtebeterako adjudikatuko da gehienez**; udalak edozein unetan berrikusi ahalko du entitatearen erabiltzaile izaera eta lagatuko espazio eta ekipamenduen esleipena; horien baldintzak aldatu ahalko ditu, baita emakida bukatutzat eman ere. Horretarako DN \*\* eskaera erabili behar da.

Urteroko deialdiaz gain, aldi baterako jarduerak egiteko espazio libreak baldin badaude, entitateek urtean zehar ere eskaerak aurkeztu ahalko dituzte espazio horiek erabiltzeko, edo emandako espazioak aldatzeko eskatu ahalko dute, garatutako jardueretara ongi egokitzen ez badira.

## 7.3 – NOIZBEHINKAKO JARDUERETARAKO ESPAZIOAK

### Noizbehinkako jardueretarako espazioen definizioa eta xedea

Noizbehinkako jardueretarako espazioak entitateek iraupen labur eta puntualetako jardueretarako erabilitakoak dira, ekitaldi esanguratsuetarako (jardunaldiak, biltzarrak, bilkurak) zein denbora-tarte laburretarako erabilitakoak (ikastaro laburrak, proiektuak prestatzeko bilerak, etab.).





#### Lokalen osaera (deskribapena, ekipamendua eta zerbitzuak)

Eskari horri erantzuna emateko, Gobelaurre Boluntariotza Zentroak ekintzak modu puntualean garatzeko espazio-zerbitzua eskaintzen du (Ikusi I. ERANSKINA).

Espazio hauek oinarrizko ekipamendu teknikoarekin erabil daitezke; Getxoko Udalak ex profeso lagako du aipatutako ekintzak egiteko.

#### Noizbehinkako jardueretarako espazioak erabiltzeko emakida

Entitateek urte osoan zehar eskatu ahalko dute zerbitzua, jarduera egin baino gehienez 12 hilabete eta gutxienez 15 eguneko aurrerapenez. Horretarako DN \*\* eskaera erabili behar da.

Lokalak noizbehinkako jardueretarako laga ahal izateko aldi baterako jarduerak utzitako ordutegi eta espazioak erabilgarri egon beharko dira.

Ebazpena Alkatetza dekretu bidez emango da.

### **8. art.- ERABILERA EZ BAIMENDUAK**

Honako hauek berariaz kanpo geratu dira:

- a) Oro har publikoari irekitako zerbitzuen prestazioa, produktuen salmenta edo izaera ekonomiko edo materialeko beste edozein jarduera.
- b) Zentroan zarata, zikinkeria (pintura, eskulan, elektrizitate edota arotzeria tailerrak) edo eragozpenak eragiten dituen jarduera oro, edo lagatako espazioen ezaugarrietara egokitzen ez diren jarduerak.
- c) Edari alkoholduak, tabakoa eta bestelakoak kontsumitzea susta dezakeen publizitate oro, edo oinarrizko etika printzipio eta giza eskubideen aurkako publizitatea.
- d) Altzariak sartzea Gizarte Zerbitzuek alde aurretik berariazko baimena eman ez badute.
- e) Animaliak sartzea, txakur gidarien araudiak ezarritakoa salbu.
- f) Erabilitako lokaletan obrak edo aldaketak egitea
- g) Entitatearen ondasun edo objektuak emandako lekuetatik kanpo biltegitzea

### **9. art. – BOLUNTARIOTZA ZENTROA KUDEATZEA ETA KOORDINATZEA**

1.- GOBELAURRE Boluntariotza Zentroaren **kudeaketa eta mantentze-lan** orokorren arduraduna Getxoko Udaleko Gizarte Zerbitzuen Saila da, eta honako funtzio hauek hartuko ditu bere gain:

1. Espazioak eta baliabideak erabiltzeko irizpideak definitzea eta berrikustea
2. Erabilera-eskabideak onartzea, ukatzea edo lehenestea
3. Entitateetatik helarazitako edozein proposamen baloratzea
4. Entitateen artean bizikidetzara-arauek errespetatzea zaintzea
5. Entitateen artean sor daitezkeen balizko gatazka edo egokitzapenik eza konpontzea



2.- Gobelaurre Boluntariotza Zentroak ez du zentroaren egunerokotasuna antolatu eta kudeatzeko udal langile zehatzik. Erabiltzaileek eguneroko jardunaren garapena autokudeatuko dute.

**SAREKIDE Getxoko Boluntariotza Erakundeen Elkarteak Gizarte Zerbitzuen Sailarekin** kolaboratzen du GOBELAURRE Zentroa kudeatzen eta funtzionamendua koordinatzen; zuzen mantentzea zaintzen du eta sor daitekeen edozein gorabehera puntualki jakinarazi behar dio udaleko Gizarte Zerbitzuen Sailari.

### **10. art.- FUNTZIONAMENDUKO BALDINTZA OROKORRAK**

1.- Entitate eta erabiltzaile ororen ekintzen garapena emakida akordioan ezarritako baldintza, ordutegi eta egutegira egokitu beharko da.

2.- GOBELAURRE Boluntariotza Zentroa honako funtzionamendu-baldintza orokor hauen arabera arautuko da:

- Pertsona eta erabiltzaile orok eskubide eta betebeharrak dituzte
- Espazioak, baliabideak eta zerbitzuak multifuntzionalak dira eta erabilera anitz dituzte, eta elkarte eta entitate guztien eskura daude, Getxoko Udalaren berariazko baimena izanez gero.
- Espazioak partekatu egiten dira hainbat pertsona eta entitateekin, eta entitate erabiltzaileek ezingo dute ulertu erabilera eskusiboko espazioak direnik. Beharrezko egokitzapen eta birkokatzeak egin ahal dira, Gobelaurre Boluntariotza Zentroko helburuak betetzea eta ahal bezainbeste aprobetxatzea hobetze aldera.
- Getxoko Udalak ez du erakundeek zentro barruan zein kanpoan bultzatu edo egindako jardueren gaineko inolako erantzukizunik izango; horrenbestez, ezingo zaio eskatu inolako betebeharrak ekonomiko, fiskal edo lan arloko betebeharrak, ezta esleitutako baliabide/espazioko entitateen erabileratik eratorritako beste edozein ere.
- Lokalen garbiketa eta ur, elektrizitate, berokuntza eta Interneteko konexioko (WIFI) kontsumotik eratorritako gastuen ardura Getxoko Udalak hartuko du bere gain.
- Getxoko Udalak lokalean garatutako jardueren berri eman dezake, baita entitateen komunikabide digital edo idatzietan argitaratutako irudiak hedatu ere, irudi-eskubideen truke ezer ordaindu beharrik gabe.
- Edozein egoera dela medio, Getxoko Udalak Gobelaurre Boluntariotza Zentroa aldi baterako edo behin betiko itxi behar badu, entitateen alde egindako lagapen guztiak automatikoki iraungiko dira; hala, zentroa erabiltzen duten entitate guztiek zentroa utzi beharko dute, eta horrek ez die inolako eskubiderik eragingo konpentsazio edo kalte-ordainak erreklamatzeko edo jasotzeko.



#### **11. art.- LOKALA ERABILTZEKO EGUTEGIA ETA ORDUTEGI-BANAKETA**

Boluntariotza Zentroa urteko 365 egunetan erabili ahalko da, eta zentroa astelehenetik igandera 08:00etatik 22:00etara egongo da zabalik.

Berriazko baimena salbu, egoitza eta jarduerak instalazioak itxi baino ordu laurden lehenago bukatu eta itxiko dira.

#### **12. art.- ASEGURUAK**

1.- Instalazioak lege xedapenen mende egongo dira hirigintza, segurtasun, osasun eta higiene arloetan, garatutako jarduera nagusiarekin bat etorriz. **Getxoko Udalak erantzukizun zibileko aseguru bat dauka**, instalazioa bera akastuna izateagatik sor daitezkeen istripuak estaltzeko.

2.- Erabilera-lagapena jasotzen duten **entitate** zein jardueren sustatzaileek **erantzukizun zibileko eta istripuen aseguruak** izan beharko dute, kasuan kasuko **entitateak garatutako jardueren multzoa** estaltzeko; aseguruak indarrean egon beharko du jarduera garatzen den aldi osoan.

#### **HIRUGARREN TITULUA: ENTITATEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK**

#### **13. art.- ENTITATE ETA PERTSONEN ESKUBIDEAK**

1.- Entitateek eskubide hauek izango dituzte:

- a) Kasuan kasuko emakidan zehaztutako modu eta ordutegietan espazioak erabili ahal izango dituzte, baita biltegiratze espazioak ere.
- b) Lagatako lokalak egoera onean egon beharko dira (garbiketa eta mantentze-lanak)

2.- Gobelaurreko Boluntariotza Zentroko erabiltzaileen eskubideak bermatze aldera, eta gorabeheren komunikazio-sistema azkarra finkatzeko, Getxoko Udalak Abisu, Kexa eta Iradokizunen udal sistema entitate erabiltzaileen esku jarri du: <http://www.getxo.eus/es/servicios/solicitudes/incidencias-web>. Mezuak idatziz aurkez daitezke edozein udal instalaziotan.



#### 14. art.- ENTITATE ETA PERTSONEN BETEBEHARRAK

Espazioak erabiltzeko baimendutako entitateek baldintza hauek errespetatu beharko dituzte (betebehar horrek entitate bakoitzeko erabiltzaile edo parte-hartzaileei ere eragingo die):

- Gainerako erabiltzaileak errespetatuz jokatzea, elkarbizitza egokia izateko beharrezko jokamoldea izanik, higiezinako beste erabiltzaile batzuei eragozpenak edo kaltea eragitea saihestuz eta gainerako erabiltzaileekiko jokabide oldarkorrek ekidinez.
- Lokala erabiltzea baimendutako jarduera egiteko, emakidaren inguruabarretara egokituz. Zerbitzu edota baliabide erabilgarriak ezingo zaizkie hirugarrenei laga, inolaz ere ez.
- Instalazioak, zerbitzuak eta ekipamenduak kontu handiz erabili beharko dira. Instalazio/baliabideak gaizki erabili edo zabarkeriaren ondorioz sortutako akatsak udalak konponduko ditu. Gastua erreserba egin du(t)en entitateari/entitateei jasanaraziko zaio/zaie; kasuan kasuko entitateak eragindako kalte eta eragozpenen erantzukizuna modu solidarioan hartuko du bere gain.
- Jarduerak egiterakoan sor daitezkeen aldaketen berri ematea udalari, eta zerbitzuaren garapen egokia oztopatu dezakeen edozein gorabehera aldeztu aurretik nahikoa denboraz jakinaraztea.
- Jarduera bukatzerakoan, entitate bakoitzak lokala erabiltzeko baldintza onetan utziko du, txandaz dagokion hurrengo erakundeak erabil dezan; funtzionamenduko edozein gorabehera edo anomalia, hausturak, gabeziak edo araudi honetan ezarritakoa ez betetzea idatziz jakinarazi beharko da.
- Eguneko azken jardueraren erabiltzaileek espazio orokorra itzali eta ixteko betebeharra daukate, baita erabilitako aretoei dagokienez ere. Bidenabar, alarma orokorra konektatu beharko dute. Halaber, bulegoetan kokatutako entitateak dagokion espazio zehatza itzali edo itxi egin beharko du.
- Instalazioan utzitako materiala behar bezala identifikatuta egon beharko da, horretarako ezarritako leku edo armairuetan batuta eta antolatuta. Gizarte Zerbitzuen Saila ez da material horren narriadura, galera edo lapurretaren erantzulea izango.
- Zentroan finkatutako osasun eta higieze araudiak bete egin beharko dira.
- Gizarte zerbitzuetatik eskatutako datuak ematea, espazio/zerbitzuen erabilera-maila eta -motaren jarraipena egin ahal izateko.
- Erabilera-emakidaren epea betetzerakoan, lan-ekipamendua eta espazioa hustu beharko dira eta jasotako baldintza berberetan utzi beharko da; entitateek dagokien material guztia eraman beharko dute.
- Kasu bakoitzeko zehaztapenak salbu, entitateek aurreikusitako jarduerak garatzeko eta ekipamendua erabiltzeko giza baliabide eta baliabide material propioak izan behar dituzte (altzariak, baliabide teknikoak, etab.); udala lan arloko edozein erantzukizunetik kanpo geratzen da.
- Entitate bakoitzak lokaleko erabileren ardura izango duen pertsona izendatuko du, eta sarbide ateko hiru txartel elektronikoak soilik pertsona horri emango zaizkio, baita erabili beharreko beste edozein ateko giltzak ere. Salbuespen gisa, txartel berriak eman ahalko dira.

GOBELAURRE Boluntariotza Zentroa erabiltzeko entitate baimenduen komunikazioak helbide honetara bidera daitezke: [gizartez@getxo.eus](mailto:gizartez@getxo.eus)



#### **LAUGARREN TITULUA: LAGAPENA IRAUNGITZEA**

#### **15. art.- LAGAPENA IRAUNGITZEKO ARRAZOIAK**

Lokala lagatzeko epea bukatzeaz gain, lokalak erabiltzeko eskubidea galtzeko arriskua egoera hauetan ere izango da:

- a) Entitateek dokumentu honetan ezarritako betekizunak galtzea
- b) Entitateek dokumentu honetan araututako betebeharren bat betetzen ez badute
- c) Adjudikatutako espazioa ez okupatzea lagapenaren indarraldian, horrela jokatzea justifikatuko lukeen kausaren bat argudiatu eta egiaztatu gabe.
- d) Espazioak eta baliabideak erabiltzeko ordutegiak ez betetzea, gehiegikeriaz edo akatsez, baita aurreikusitako eta eskainitako jardueri dagokienez ere.
- e) Gobelaurre Boluntariotza Zentroko lokalen erabilera bertan behera utzi edo aldatzeagatik.
- f) Getxoko Udalak zentroa aldi baterako edo behin betiko ixteagatik

#### **14. art.- LAGAPENA IRAUNGITZEA ADIERAZTEKO PROZEDURA**

1.- Udalak lokalak erabiltzeko eskubidea iraungitzeko prozedura abiarazi ahalko du, dela ofizioz, dela lokalen beste entitate erabiltzaile batek salatzeagatik. Erabilera-eskubidea lagatzea hasteko erabakia erakunde interesdunari jakinaraziko zaio eta 10 eguneko entzunaldi izapidea emango zaio; epe hori igaro ondoren Alkatetza dekretu bidezko ebazpena emango da.

2.- Erabilera-eskubidea iraungitzeko jakinarazpena jaso ondoren, entitateek espazioa libre utzi beharko dute, armairuak hutsitu beharko dituzte eta lokalera sartzeko giltzak entregatu beharko dituzte. Entitateak baimena ematen dio Getxoko Udalari armairuetan eta tiraderetan utzitako edukia botatzeko, baldin eta adostutako epea igaro ondoren entitateak ez baditu hutsik utzi.

#### **XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA**

Erabilera-araubide hau onartu aurretik lokalak erabiltzeko lagapen-eskubidea aitortuta duten entitateek araudi honetara egokitu beharko dute, eta urteko deialdian adierazitako epean lagapena berritzeko eskaera egin beharko diote Getxoko Udalari.

#### **XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA**

Alkatetzaren 2976/2017 bidez onartutako Gobelaurreko lokalak erabiltzeko araubidea indargabetuta geratu da.



**Getxo**  
*bizi ezazu*

**GOBELAURRE**  
Boluntariotza Zentroa

### **AZKEN XEDAPENA**

**LEHENENGOA:** Getxoko Udalak erabilera-araubide hau interpretatzeko eta, hala badagokio, beharrezko aldaketak txertatzeko ahalmena izango du, bertan ezarritakoa argitu, aldatu edo garatzeko, instalazio eta zerbitzuak zuzen erabiltzeko. Nolanahi ere, erabiltzaileek oharrak eta jarraibideak eman ahal izango dituzte.


**BIGARRENA:** Erabilera-araubide hau indarrean egongo da Alkatetza dekretu bitartez onartzen den egunetik.

Getxo, 2018ko ekainaren 25a

MIKEL KEREXETA KORTABARRIA  
*Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza*  
Director de Servicios Sociales



I. ERANSKINA  
**GOBELAURRE BOLUNTARIOTZA ZENTROKO BANAKETA-PLANOA**  
 (Getxo, Romo. Plaza, Chavarri Zuazo z.g.)  
 Jardueretarako egoitza eta lokal komunak



7., 8. eta 9. gelatan modulu-horma mugikorak daude; hala, hainbat konbinazio daude:

- Espazio bat: 7+8+9
- 2 espazio: 7+8 eta 9
- 2 espazio: 7 eta 8+9
- 3 espazio: 7, 8 eta 9

Ikus-entzunezko baliabideak:

- 7. gelan pantaila-monitore bat dago, eta HDMI eta VGA konexioak ditu.
- 9. gelan pantaila eta ordenagailu-proiektore bat daude, eta HDMI eta VGA konexioak dituzte. Horrez gain, megafonia sistema ere badago.
- 3. gelan proiektatzeko pantaila bat ere badago.